Etxebizitza barruko ate guztiak zabalik edukitzea ere beste trikimailu bat da. Askok uste dute erabiltzen ez den gela bateko atea itxi eta gela horretan berogailurik ez jartzea kontsumoa aurrezteko modu bat dela. Baina ideia hori ez da zuzena. Egokiena da etxebizitza osoa tenperatura berean mantentzea.



**ANDAMIOAK
DITUGU!**

TXAIFER
ERAIKUNTZAK, S.L.

Teilatuak, fatxadak, etxe barruko konponketak, igeltseritzako lanak orokorrean.

605 71 18 84 / 608 87 79 12 Letraukua 1-behea
LEKEITIO txaifer@yahoo.es



KALITATEA LEHENESTEN DUEN FAMILIA

Mantenu lana baino gehiago. Tradizioa, kalitatea eta zaintza uztartzen dituen enpresa da Abando igogailuak. Tradiziokoa. 1988an sortu zen, Bizkaian, eta bigarren belaunaldiko familia enpresa da gaur egun. Gainera, hazkunde prozesuan dago. Bizkaian lan egiteaz gain, Gipuzkoa, Kantabria eta Burgos eta Arabako Aiaraldea inguruan lan egiten dute orain.

Bizkaiko gune perimetrala da enpresaren eremua, eta horretarako badago pisuzko arrazoi bat: bezeroei «zerbitzu on bat ematea», enpresa

arduradunek diotenez: «Gure helburua da bezeroen intzidentziak gehienez ordubetera konponduta egotea». Hori da urrunetik heldutako enkargu edo lanei ezetza ematearen arrazoiak; «ez dugu edozein lan hartzen. Gure asmoa ez da ahalik eta bezero gehien izatea fakturazioa handitzeko, baizik eta ditugun bezeroak zaintzea, eta merezi duten tratu ematea».

Hori bai, kalitatea zainduz, enpresa bezala haztea erronka da Abando igogailuak enpresarentzat: «Perimetralki hazten goazen heinean, plantilla handitzea eta zonalde bakoitza langile ezberdinekin kudeatzea». Horretarako, enpresa barruko 'familia' bere osotasunean zaindu behar

delaren ustea dute arduradunek, horrek enpresari onurak dakarzikiolako. «Gure langile denak finkoak dira, eta horietako batzuk enpresa sortu genuenetik claudelanean». Beraien lana ondo ezagutzen dute, eta jarduteko autonomia dute enpresako langileek: «Ardurak eurekin batera kudeatzen ditugu».


Mugimenduan etengabe

Sarea zaindu

Hornitzaileei dagokienez, marka ugariarekin lan egiten dute. «Mantenua eta zerbitzua ematen diegu marka askotako igogailuei, eta instalazioak egiterakoan ere, marka desberdinekin lan egiten dugu, bezeroen nahietara egokitzeko». Beraien komertzialak proiektua hobetzen saiatuko dira, beti.

Izan ere, komunitate askorentzat lan egiten dute. Zerbitzua integrala da, eta obrak egiteko proiektuak hartzen dituztenean komunitateei aholkua ematen dieten profesionalak ditu enpresak: «Abokatu, arkitekto espezializatuekin, administrazioa desberdinekin eta gertuko gremio eta hornitzaileekin lan egiten dugu».

Sare hori finkoa da, «beti profesional berdinekin lan egitea gustatzen zaigu, sarea zaindu». Elkar zaindu, bezeroa zaintzeko.



Kirikiño etorbidea, 64
BILBO

94-410 07 55

abando@ascensoresabando.com
www.ascensoresabando.com





Adimendun etxeak, erosotasunerako giltza

Lehen zientzia fikzioa zirudiena errealitate bilakatzen ari da, eta gauregun etxeetako instalazio eta tresna elektronikoak modu automatizatuan kudeatzeko eta kontrolatzeko aukera dago. Domotika esaten zaio teknologia horri, eta hari esker hainbat tresna urrutiko aginte batetik edo sakelako telefonotik martxan jarri ahal dira, esate baterako, berogailua edo aire girotua, argiztapena eta etxetresna

elektrikoak. Gainera, programa automatikoak ere sor daitezkeenez, posible da, adibidez, labea etxetik kanpo martxan jartzea eta etxera heltzeko ordurako jatekoa prest edukitzea. Azken batean, erosoago bizitzeko aukerak ematen ditu eta energia aurrezteari ahalbidetu; bizitza erraztu. Ez hori bakarrik: etxearen segurtasuna kontrolpean izatea posible bihurtzen du. Izan ere, sistema gai da suteak, gas-ihesak eta ur-ihesak detektatzeko.

Hainbat argibide

• FUNTZIONAMENDUA:

Home box kontrol gunea ezarri behar da etxean, obrarik gabe. Etxetresnek ere Internetetarako konexioa eduki behar dute.

• ETXETRESNA GUZTIAK

KONEKTATURIK:

Edozein etxetresna konektatu daiteke, Internetetarako sarbidea edukiz gero.

• ONURAK:

Aurrezkia, segurtasuna, erosotasuna, komunikazioa eta aisialdia.

• KOSTUA:

Inbertsioa etorkizunean erreperatu egiten da, energia optimizatu egiten delako.

• ONURADUNAK:

Urritasunak dituztenak, umedunak eta etxetik kanpo lan egiten dutenak.

• ERABILERA:

Erraz erabili ahal da, oso intuitiboa delako.

• 5G:

Teknologia honek bultzada handia izango du 5Gari esker.



KAREAGA
ATEAK



Ateak orokorrean
Leihoak (PVC,
aluminioa eta egurra)
Aroztegiko lanak



t.94 616 7526 f. 94 616 8479
xuri@xurisl.net
Kareaga industrialdea, 11-53
Markina-Xemein

ORDUTEGIA

Lan egunetan: 8:00-13:00 / 15:00-20:00
Zapatutan: 9:00-13:00




Primerako profesionalentzat **BEHERAPENAK** 1000 produktu baino gehiagotan!

2 solairutan, igogailuagaz,
1000 m² KO INSTALAZIOAK,
PRODUKTUEN GAMA ETA
ZERBITZUAK
HANDITU ETA HOBETU
DITUGU.

* TALDE PROFESIONALA EDOZEIN ZALANTZA
ARGITZEKO.

* URTEAN 6 PROMOZIO KANPAINA:
UDA / JARDINA, PROFESIONALAK 2, GABONAK,
BEROTASUNA, BEROKUNTZA ETA EROSOTASUNA eta
UDABARRIA.

* PROFESIONAL ETA PARTIKULARREN ESKU





Argiaren itzalean

ETXEAK ARGIZTAPEN EGOKIA EDUKI BEHAR DU
ERABAT GUSTURA EGON GAITEZEN. ETA POSIBLE DA.

Etxebizitza bat berrizatzera goazenean, akatsa da azken momenturako uztea. Aldiz, erabat gomendagarria da hasiera-hasieratik etxearen antolaketan oso kontuan hartzea. Era horretara, etxeko espazio bakoitzari erreparatu behar zaio, emango zaion erabilerari, eta horren arabera argi mota bat edo beste aukeratu. Adibidez, sukaldea, oso ondo argiztatuta egon behar

da, hau da, argia zuria eta hotza izan behar da, eta kontsumo baxuko argiak ipini behar dira. Logeletan, oster, argi beroagoak ipintzea komeni, horri xagoak. Edozelan ere, argia geure erara doitzeko aukerak aztertu behar ditugu, eta gerizpeak ekidin beti, argiztapena homogenea izan behar baita txoko guztietan. Eta gogoratu guztia- ren gainetik argiztapen naturalari probetxurik onena ateratzea.



ANDONI eta MAIDER IBARROLA
Ibarplas leihoak

"GURE HELBURUA DA JENDEA POZIK LAGATZEA"

Ibarplas leihoak 1991n sortutako enpresa familiarra da. PVCzko leihoak eta itxiturak egiten eta instalatzen espezializatuta daude. Kalitatezko materialik egokienak erabiltzea leihoen fabrikazio osoaz arduratzen dira Itziarko industrialdean duten lantegian.

Zer berezitasun dute PVC leihoak?

Leiho mota hauek ez dute mantentze lanik behar eta oso hermetikoak dira. Zarata murriztu, etxebizitza hotzetik eta berotik babestu eta energia kontsumoa asko murrizten dute.

Leihoez gain, zer produktu egiten dituzue?

Bezeroen beharretara egokitzeko orduan askotariko lanak egiten ditugu: leihoak, balkoietak ateak, gidaridun leihoak, barandak, itxiturak, begiratokiak...

Leihoak aldatzea obra handia da?

Dena neurrirra egiten dugunez, leiho zaharra goizean kendu eta berria ipini ondoren arratsalderako obra amaituta geratu ohi da. Bestelako errematerik behar izanez gero, hori aurrekontuan aurreikusita egoten da, eta hori bezeroaren jakinaren gainean jartzen da.



Zein da zuen helburua?

Gure helburua da jendea pozik lagatzea ahal dugun kalitate onena emanaz. Gure bezeroei arreta pertsonalizatua ematea gustatzen zaigu, eta horretarako kalitate gorena eta zerbitzu profesionala eskaintzen ditugu. Saldu osteko zerbitzu on bat ematea berebizikoa dela iruditzen zaigu.

Nolakoa da zuen bezeroa?

Bezero tipologia ezberdina daukagu: etxebizitza jabeak, igeltseroak, dekoratzaileak, arkitektoak... Bezeroa gurekin harremanetan jarri ondoren, euren etxebizitzetara joaten gara neurriak hartu eta euren eskakizunetara eta beharretara ondoen egokitzen den doako aurrekontu bat egiten diogu inolako konpromisorik gabe. Ordaintzerako orduan ere erraztasunak ematen ditugu. Bezeroen kasuak aztertuta, eta euren poltsikoetara hobeto egokitzen den finantzatze aukera bat ematen saiatzen gara: epeetan ordaindu edo banketxeekin ere begiratu daiteke zelan egin ordainketa.



Itziarko Industrialdea, 5. partzela
ITZIAR

943-19 92 26

ibarplas@ibarplas.com

www.ibarplas.com





Kalera begirako leihoak

BALKOIA EDO TERRAZA DUENAK
ALTXORRA DAUKALA ESAN OHI DA.

txialdi garaian aparteko balioa lortu dute espazio irekiek, etxetik irten gabe aire zabalarekin eta kalearekin gozatzeko aukera ematen dutelako, ongizatearentzat dakarren onura guztiarekin. Hori kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak legea moldatu du, eta erai-kin berrietan zein zaharretan terrazak eta balkoiak egiteko erraz- tasunak eman.

Sarri etxeko balkoian edo terrazan zereginik ez dagoela pentsatzen den arren, uste okerra da, txikienari ere probetxua atera eta amestuta-ko txokoa bihurtu baitaiteke, praktikoa zein atsegina. Horrela, dekora- tzeke orduan, beti erosotasuna aintzakotzat hartu behar da, esate ba- terako, lurzoruan. Alfonoak erostea izan daiteke aukera bat, baina ba- daude gehiago ere, hala nola, konpositea, harri naturala, egurra, lurzoru hidraulikoa edo, zergatik ez, belar artifiziala.

Bestalde, etxean egonik kanpoan egon arren, intimitatea alboratu beharrik ez dago, adibidez, barandak egurrezko panelekin estalita.

Horrez gain, mahaitxo bat eta aulki batzuk jarri daitezke, tolesgarriak eta erraz gordetzeko moduak edo finkoak, barruan gauzak gordetzeko aukera ematen dutenak, premien arabera. Eta egunez modura, gauez ere giro aproposa lor daiteke, argiztapen egokiarekin, LED girlandak edo kandelak erabiltuta, kasu.

Nolanahi ere, burukomin handirik hartu nahi ez bada, gogoratu landareak eta loreak ezin direla falta. Haiek ematen diote tokiari bizitasuna, kolorea eta usaina, baita eguzkirik jotzen ez duen balkoietan ere.



porru
anaiak
margolariak



Tel.: **699 85 22 46**
ula.etxebe@gmail.com
LEKEITIO

• INSTALAZIOAK
OROKORREAN
• MANTENIMENDU
LANAK
• ATEZAIN
AUTOMATIKOAK



LAYROK, S.L.
IGELTSE RITZA

636 150 729 • 629 561 332

Gardotza Industrialdea, P 21 Eraikina • BERRIATUA



657 771 028
615 767 564
artakuk@euskalnet.net



Eroso egoteko gelak



Zuruntasunetik aldenduta, egongelak gune askeak dira, aldiro eraldatu daitezkeen gelak. Altzari zaharrak eta modernoak konbinatu, testura ezberdinak tartekatu, argiztapenak bereizi... diseinu eta dekorazio aukera asko daude egongela eroso bat lortzeko.

Sofak dira egongelen bihotza, eta oso kontuan hartu behar dira egongelaren banaketa planteatzerakoan. Ondo aukeratzea da gakoa. Egongela txiki batean sofa handiegia bat edo egongela handi batean sofa txikiegia izatea baino akats handiagorik ez dago. Zenbait kasutan, bi sofa edukitzea baino egokiagoa da *chaise longue* bat aukeratzea.

Ahalik eta atseginen eta praktikoen izatea bilatu behar da, eta aukeratzaren diren altzarien eta koloreen araberak, egongelak handiagoa edo txikiagoa emango

du. Zenbat eta hutsago egon, handiagoa emango du. Eta dena zuria bada ere bai. Piezen artean komeni da gutxieneko pasabideak uztea; zabalera sentsazioa areagotzeko –sofaren eta erdiko mahaiaren artean 45 cm-ko tartea egotea gomendatzen da–.

Argiztapena da oso kontuan hartu behar den beste elementu bat. Argi naturala izatea garrantzitsua da, eta horregatik, oztoporik ez zaio jarri behar. Argi artifizialari dagokionez, espazio bakoitzari giro berezia emateko, zeharkako argiak (zutikakoak edo mahaiko lanparak) erabiltzea da egokiena. Itenbide ona da intentsitate graduagarriko argiak erabiltzea, hainbat giro sortzeko aukera ematen duelako.

ALTZARI BAXUAK

Hormaren garaiara aprobetxatzeko aukera ematen dute, ez baitute espazio handirik betetzen. Altzariaren goikaldea, adibidez, apalategi bezala erabili daiteke.



LANERAKO TXOKOA

Egongelan lanerako txoko bat izatea da 2021eko beste joera bat. Bulego bat jartzeko metro koadro faltan, idazmahai bat jarri daiteke (ikusten dena edo ez-kutukoa) egongelan bertan. Eraldatu daitezkeen altzariak ematen dute horretarako aukera.

NATURA OINARRI

Testura leuna alde batera utzita, naturari keinu egiten dioten pintatutako pape-rak indartsu sartu dira dekorazioan: loreek, hostoek edota adarrek etxe barru-raino sartuko dute kanpoaldean bizi-bizi dagoen natura. Diseinu organikodun altzariak ere joera dira 2021ean.

SABAIK PROTAGONISTA

Protagonismo handiagoa hartu dute sabaiek aurtan. Egurrezko eta hormi-goizko habeak bistaratzea edota habe faltsuak jartzea da egongeletarako aurtengo beste joeretakoa bat. Habe faltsuak jartzeko, baina, sabaiek altuak izan behar dira.

Gorka
igeltseritza


IGELTSERITZA
OROKORRA
Teilatuak, fatxadak,
etxe barruko konponketak...

689 93 83 60 LEKEITIO

AROSTEGIA DAKAILZ S.L.
era guztietako egur lanak

ATEAK,
TARIMAK,
LEIHOAK,
PERTSIANAK,
SUKALDEAK
ETA
ALTZARI
MONTAIK

Egidazu kaia, 7 ONDARROA 94-683 21 68 / 605 71 54 04 / 657 79 98 09



**BADIOLA
BURDINDEGIA
OPTIMUS**

Zure konfiantzazko burdindegia

Artibai, 8 ONDARROA
94-683 22 07

leur2012@hotmail.es





Alfonbrak, estiloa eta berotasuna bat eginda

Alfonbra ezinbesteko dekorazio-osagarria da; bistarako plazer. Izan ere, etxe bat jantzita egotea, ezin da alfonbrarik falta, bate-tik, etxean sentiarazten gaituelako, eta, bestetik, bisitariak hartze-ko erarik goxoa delako. Hortaz, estetikoki erakargarria da, baina, horretaz gainera, oso praktiko-koa. Ez hori bakarrik, espazioak banatzeko edo zara-
rata moteltzeko erabil dezakegu, baita akatsak di-

simulatzeko ere. Bestalde, elementu klasikoak izan arren, moda-modakoa ere bada, sektorea beti baitago merkaturako eskaintzarik onena prestatzen. Joerei erreparatuz gero, forma geometriko-dunak daude puntaren puntan, eta gaiei dagokienez, material garbikoak eta naturalekoak zein bini-loak aurkitu daitezke merkatuan. Azken horiek oso harrera ona eduki dute, besteek modura diseinu aukera zabala eskaintzeaz gain garbitzeko errazak direlako.



Santa Katalina, 1A
Tel. 94 684 08 52
Faxa: 94 684 26 78

**MOTA
GUZTIETAKO
ERAIKUNTZAK**

"GURE BEZEROEKIN KONPROMETITUTA GAUDE, ETA HAIEN BEHARRETARA EGOKITZEN GARA"

IKUSI
IDOIA LLANOS GARCIA
MAITENA EGIA SOLAUN



1 978tik martxan, Ikusi zeramikan eta eraikuntzako materialetan espezializatutako enpresa bat da. Eraikuntzarako ohiko materialagaz gainera, produktu berriek osatzen dute Ikusiren eskaintza.

Zer eskaintzen die zehazki ikusik bezeroei?

Paskual Abaroa hiribidean daukagu denda, eta bertan, tamaina, material eta prezio ezberdinetako zeramika eskaintzen dugu, baita Velux leihoak eta Hergom markako sukaldeak eta tximiniak ere. Urte hauetan, enpresak garai berrietara egokitu du bere eskaintza, eta sektorearen bilakaerara eta bezeroen beharretara egokitu da. Horrela, gaur egun dutxa-platerak, manparak eta bainugelako altzariak ere baditugu, eta, gero eta eskari handiagoa izaten ari diren lur laminatuen aukera handia eskaintzen dugu, gama altukoa zein normala. Gainera, ikusik bi biltegi ditu, bata Gizaburuagan eta bestea Lekeitio. Horietan, eraikuntzako ohiko materiala (zementua, kolak, adreiluak), hainbat motatako eta koloretako teilak eta lanerako arropa eta erremintak saltzen ditugu.

Azken berritasunak zeintzuk dituzue?

Aurten, ortuetarako lurra saltzen ere hasi gara gure biltegietan: substratua (lur abonatua) eta konposta (ongarria).

Zerk egiten du desberdin zuen enpresa?

Gure bezeroekin konprometituta gaude, eta haien beharretara egokitzen gara. Egunero ahalegintzen gara gure bezero guztiei erosketa esperientziarik onena eskaintzen: kalitate profesionala, materialen eskuragarritasuna eta erosteko azkartasuna. Hori guztia aholkularitza profesionalarekin batera. Gidatu egiten dugu bezeroa daukan behararen arabera, bere proiektua bere gustura gertatzeko. Behar dutena biltegian ez badaukagu, eskatu egiten dugu, eta etxera ere joaten gara neurketak egitera. Aurrekontuak inongo konpromiso barik egiten ditugu.



Paskual Abaroa Etorbidea, 19
LEKEITIO
94-684 14 99
ikusisanti@gmail.com

Etxeko giroa garbitzeko modu naturala

Landare batzuek etxeko airearen kalitatea ere hobetzen dute. Substantzia kaltegarriak desegin eta airea garbitzeko gai dira, eta oso aproposak dira txoko aireztatu gabeetarako. Hostoetatik gai kutsakorrak xurgatzen dituzte, are eta hobeto hosto handikoak badira. Leku irisgarrietan

jarri behar dira, eta nahikoa toki izan behar dute. Ez ipini hauen alboan: erradiadoreak, aire girotuaren gailuak, ohiko pasabideak eta aire-korronteak.

Adituek diote 50 landare garbitzaile daudela, sonatuenak, hauek:



Areka:

Giro hezea lortzeko aproposa. Barnealdeko landarea da batez ere, nahiz eta kanpoan klima bero-etan landatu daitekeen.



Espatifiloa:

Garbitzaile indartsuenetakoa. Hezetasuna gustuko du. Kokagune onena, argi naturaleko bainugela.



Gomeroa:

Hezetasuna mantentzeko egokia. Azkar haz daiteke.



Drakaena:

Estresa, antsietatea eta tristura eragozten ditu.



Huntz Ingelesa:

Balkoirako landare igokaria. Hainbat konposatu organiko lurrinkor kaltegarri murriztu ditzake. Hotza eta hezetasuna behar ditu.



Buenaventura
Zapirain 3, behea

LEKEITIO
94-656 08 26



- Apainketa proiektuak
- Altxariak neurri ezberdinetan
- Arotz-lanak, denetakoak
- Sukaldeak
- Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)

Errenteria Auzoa • ONDARROA
94 683 18 07 • barrueta@barruetaabena.com

AROTEGIA

BARRUETABENA

APALLU ITURGINTZA



- ITURGINTZA
- BEROKUNTZA
- GASA
- AIRE EGOKITUA
- ENERGIA
- BERRIZTAGARRIAK
- DENETARIKO
- ZAHARBERRITZEAK

San Agustin, 3 MUTRIKU
600 316 381 • 943 02 98 61

apallu@apallu.es / www.apallu.es



ASTIGARRAGA ANAIK S.L.U.
Txurruka Tteak 28 Behea
20830 Mutriku
T.943 60 40 86
astigarragamutriku@outlook.es

***Aukera handia keramiketan
gure erakusketan!***

*Igeltzeritza, barne diseinua,
gremioen koordinaketa, Proiektuak 3D-n,
fatxada eta teilatuen eraberritze lanak...*



***Zure ametsetako sukaldea ere eskaintzen
dizugu, elektrogailuak, entzimerak...
diseinua 3Dn, guztiz pertsonalizatua.***



Ingurumenarekin kontaktuan



Etxea etxeago da landareak edukita. Bizi-poza ematen dute, bizi kalitatea, eta denboraren kontzeptua aldatu egiten da, are eta gehiago etxean gehiago egon behar den aldietan. Hori bai, lorategi ederra edukitzeko eta ondo zainduta, oinarritzko sei zeregin hartu behar dira.

1. Landatu

Ez jarri estuegi, eman lekua landareei, tamainaz ondo garatu daitezzen, eta zulo zabalak zulatu.

2. Ureztatu

Lehen urtean, landaketatik hasita, zaindu ureztatzea, sustraiak oraindik ez direlako oso sakonak. Ureztatu goizean goiz edo iluntzean. Hobe motz geratzea.

3. Ongarritu

Urtero ongarriren bat eman behar zaie landareei. Onena ongarrri organiko bat eta ongarrri mineral bat erabiltzea da.

AROTEGI
OROKORRA
•
SUKALDEKO
ALTZARIAK
•
DEKORAZIO
PROIEKTUAK
•
LOGELAK,
EGONGELAK,
KOMUNAK...

osa
a r o z t e g i a
s u k a l d e a k

94 683 02 29

San Inazio, 29 behea ONDARROA
osaerreformak@gmail.com

MUTRIKU
goixarri@gmail.com

GOIXARRI S.L.

ERREFORMA LANAK

630 27 34 14 • 615 75 09 60



4. Belartxarrak kendu

Belarren aurkako sareak edo bi-guingarriak erabiltia.

5. Inausi

Zuhaitzak, zuhaixkak, igokariak eta arrosak neguan inausten dira, eta tarteka esku-hartze arinak egin behar dira.

6. Izurriteak eta gaixotasunak kontrolatu

Landareak behar bezala landatu, ureztatu eta ongarritzen badira eta argi nahikoa badute, indartsu egongo dira, eta askoz ere gogo-

rragoak izango dira izurriteen eta gaixotasunen aurrean. Maiz ikuskatu orriak, parasitorik edo gaixotasun-zantzurik dagoen jakiteko. Zenbat eta lehenago aurkitu, orduan eta errazagoa izango da kontrolatzea.

Gogoratu:

Etxean, balkoian eta lorategian haz daitezkeen 90 landaretik gora daude. Beraz, badago non auke-ratua. Lorategia zainduta, arazoekin deskonektatuko dugu, eta inguru-menarekin kontaktatu.



685 75 83 16

Egidazu kaia, 1- 1.sol -1.atea
ONDARROA

aitorpintxori@gmail.com

MARGO APAINKETAK



**Eraikuntzak
eta Igeltseritza**

Miguel Angel Etxaniz Guenetxea

Kareaga Ind. Pab.1-6A
Ilunzar auzoa, 3
MARKINA-XEMEIN

Tel/Fax: **946 160 048**
Mob. **605 718 835**
etxanizanitua@telefonica.net



BARNE DISEINUA

09:00 - 13:00 / 14:30 - 18:30

**Egoera berezi honetan aurretiko hitzordua hartzea gomendatzen da.*

ZEAR KALEA, 5 48270 MARKINA-XEMEIN
94 616 63 26 - 676 972 034
ibane@ibane.es



 [ibane.barnediseinua](https://www.facebook.com/ibane.barnediseinua)
 [ibane_barnediseinua](https://www.instagram.com/ibane_barnediseinua)

Zura oinetan, atsegin bete



Zurak berotasuna ematen dio etxeari, eta arrazoi horregatik zoruan jartzeko material gogokoenetakoa da. Gainera, ondo zainduta dagoenean, hezetasuna erregularizatzen du, xurgatu egin dezakeelako edo eman egiten duelako, ingurune baldintzen arabera. Era berean, giro atsegina goak eta epelagoak sortzeko elementu aukeratuena da. Horrela, udan freskotasuna ematen du eta neguan berotasuna. Puntu horretan, zuraren

gainean ortozik ibiltzeak ematen duen plazera nabarmentzekoa da.

Zura isolatzaile termikoa da, eta ez du pilatzen hauts akarorik edo alergia-eragin dezakeen beste elementurik. Hori bai: tarteka, leundu egin behar da, zuraren lodieraren arabera, baina, edozein ere, urte asko iraun ditzake.

Dohainak dohain, ondo zaintzea komeni da. Hartu kontuan aholku hauek:

• ERA GUZTIETAKO ERREFORMAK • TEILATUAK • FATXADAK

ERAIKUNTZAK ETA HARRILANAK S.L.

IBARRI

687 795 736 • ibetarri@ibetarri.eus • Eleizkale 5, 48380 AULESTI (BIZKAIA)



• BASERRIEN "BARRIZTEA" • ERAIKUNTZA BERRIA • PROIEKTUAK

AHOLKUAK

- Etxeko hezetasun erlatiboa %40-%70 artean egotea komeni da, ez uzkuertzeko edo zabaltzeko.
- Temperatura 17 eta 21 gradu bitartean mantentzea aholkatzen da.
- Kanpora denbora luzez joan beharra edukiz gero, geletan ur ontziak jartzea da onena, eta haize sarrera txiki bat uztea.
- Altxariak mugitu behar izanez gero, feltro itsasakorrak jarri behar dira.
- Etxearen sarreraren alfonbra ipini behar da, zinkinkeria, ura eta bestelakoak sar ez daitezzen.
- Ez mugitu gurpildun aulki, altxari edo jostailurik.
- Ez jarri enbalatzeko zinta itsasgarriarik egurraren gainean, berniza xurgatu eta zorua kalteetzen baitute.
- Zura garbi mantentzeko makina eta xaboi aproposak daude.



denda berria!

Cikusi Ante

BARNE DISEINUA • GREMIOEN KOORDINAZIOA • MARGO LANAK

Gamarra enparantza, 1
LEKEITIO 94-684 09 92



Xabat
Iturgintza
Iturgintza-berogintza-gasa

artabide, 9 behea • ondarroa
605 77 20 80

ALTZARIAK

Altzarietan forma biribilduak nagusitzen hasita daude. Gainera, mahai biribilak jarritz gero, lekua irabazten da, eta onurak hor daude: Feng Shui sistema filosofiko txinatarren arabera, jangelako mahaiak ertz biribilduak badauzka, jankideen arteko komunikazioa suspertu egiten da. Ausarta izanez gero, koadro-puf batekin egin daiteke proba. Eta urrats bat aurrera eman nahi duenak forma biribileko besaulkiak ipini ditzake.

**ISPILUAK**

Ispilu biribilak nonahi ikusten dira. Aproposak dira leku txikietarako: ondo kokatuz gero, handiago ikusten dira tokiok.

**ALFONBRAK**

Egongelako edo logelako elementu bat nabarmentzeko ez ezik, monotonia hausteko ere erabiltzen dira. Alfonbra ez da izan behar ez handiegia ez txikiegia, eta koloreari eta estiloari dagokionez, gelako gainerako elementuekin bat etorri behar du.

Biribiltasuna, ertza ateraz

ETXEA ORAINDIK ETA HOBETO EDUKI ETA
LASAITASUNA NAHI DUENAK BIDE ERDIA EGINA DAUKA
FORMA BIRIBILEKO OSAGIAK SARTUTA.
ETA TXOKO APROPOS UGARI DAUDE HORRETARAKO.

Seijo

629 31 50 11
626 77 43 42

PINTURA
LANAK



LEKEITIO

Eusebio M. Azkue
(Trinkete aurrean)

seijopinturalanak@gmail.com



Hogeita hamar urte elkarrekin
Hogeita hamar urte zure pisua saltzen edo erosten laguntzen
Hogeita hamar urte zure negozioarekin laguntzen

Beste 30 urtetan zu laguntzeko prest

Eskerrik asko!



Artabide 12, Ondarroa
info+ 94 683 18 02
info@lagunkor.eus

lagunkor



aholkularitza & inmobiliaria



D12 kolekzio berria